

## **Fernando Furundarena (Arretxeko koordinatzailea)**

### **Koordinatzaileei elkarrizketa:**

- 1. Datu orokor batzuk: enpresa zein den, noiztik dago martxan Euskara Plana, noiztik zara koordinatzaile, ...**

Enpresa Talleres Arreche, SA da, Tolosan dago eta karburagailuak eta dekoletajeko piezak egiten ditugu. Euskara Plana 2005ean jarriz genuen martxan eta hasieratik naiz koordinatzaile. Enpresaren web orria: <http://www.arreche.es/eus/>

- 2. Euskararen nolako erabilera irudikatzen duzu zure lantegian 10 urte barru?**

ESPERO DUT HEMENDIK HAMAR URTERA EUSKARA ENPRESAN NORMALIZATUTA EGONGO DELA, HAU DA, EUSKALDUNEK OSOTASUNEAN BERE LANA EUSKARAZ EGITEKO AUKERA IZANGO DUTELA.

- 3. Planak dituen kanpo babesak (dirulaguntzak, agiriak...) nahikoak iruditzen al zaizkizu? Zer behar da?**

BETI HOBETU DAITEKE, BAINA, ORO HAR, USTE DUT NAHIKOA DELA. FALTA DENA, AGIAN, BAI EUSKO JAURLARITZAK ETA BAI UDALEK DIRU- LAGUNTZALK EMATEN DITUZTELA ZABALTZEA DA, JENDEA INFORMATZEA; ETA HORREKIN BATERA, ENPRESAK ETA JENDEA MOTIBATZEA, NOSKI.

- 4. Eta barruko babesak? Zer falta da?**

Gure kasuan, barruko babesa eduki dugu. Hasieratik zuzendaritza inplikaturik egon da. Falta dena denbora da, horretarako dedikazio gehiago beharko litzateke, liberatuta ordu batzuk...Denbora gehiagorekin jendeak gehiago `parte hartuko lukeelakoan nago, jendeak zeregin asko baititu, bai lanean eta baita lanetik kanpo ere.

- 5. Zergatik koordinatzaile? Zerk bultzatu zintuen Euskara Planeko lanetan konprometitzera?**

PROIEKTU GUZTIETAN BEHAR DA PERTSONA BAT HELBURUAK AURRERA ERAMATEAZ ARDURATUKO DENA; KASU HONETAN, NIRI EGOKITU ZITZ AidAN. EGUNKARITIK NENTORREN ETA GAI HONEKIN SENSIBILIZATUAGO NENGOENEZ, GAI HONEKIN KONPROMISOA HARTU NUEN.

**6. Zer nolako profila izan beharko luke koordinatzaileak bere lana egoki betetzeko? Profila esaten dugunean, formazioaz ari gara, pertsonaren dohainez ari gara, trebetasunez eta gaitasunez ari gara.**

Ez dut uste garrantzitsuena koordinatzailearen profila denik, baizik eta lantalde sendo bat sortu eta horiek gogotsu aritzea, denbora pixka bat dedikatzea. Motibatuta egonez gero, formazioa ez da hain garrantzitsua.

**7. Zer eman dizu koordinatzaile izateak? Zer ekarpen egin dizu postuak? Eta zerbait kendu al dizu?**

**Eman:** proiektu itxaropentsua eta ilusionantea da eta urteko helburuak lortzen direla ikusitakoan poza ematen du. Aurrerapausoak ematen dira hasieratik eta oso pozgarria eta motibagarria da hori.

**Kendu:** denbora eta ilusioa ikusten duzunean gauzak egitea kostatzen dela, ez dela hasieran pentsatu bezain erraza zenbait helburu eta ekintza aurrera eramatea.

**8. Zer zailtasun dituzu zure koordinatzaile lana aurrera eramateko? Zer falta zaizu?**

Falta, lehen esan dudana bezala, denbora falta da.

Nik daukadan beste kezka bat gazteen motibazioa da: nire ustez, gazteek euskara guk baino "normalizatuago" ikusten dute (eskolan euskaraz ikasi dute, lagunartean euskaraz egiten dute...) eta ez diote gai horri lehentasunik ematen, ez dute arazorik ikusten; guk aldiz (35-50 urte inguruko jendeak) beste ikuspuntu batetik ikusten ditugu gauzak, beste egoera bat ezagutu dugulako eta borrokatu egin behar izan dugulako gauza asko lortzeko.

**9. Koordinatzaile kargua hartu zenuenean, espero al zenuen egin beharreko lana horrelakoa izango zela? Zerk harritu zaitu gehien?**

LAN HONETAN HASI NINTZENEAN PENTSATZEN NUEN GAUZAK AZKARRAGO ETA ERRAZAGO EGINGO  
GENITUELA, GAUZAK ALDATZEA ETA HELBURUAK LORTZEA SAMURRAGOA IZANGO ZELA.  
HARRITU EGIN NAU, BERRIZ, NOLA PIXKANAKA-PIXKANAKA, HASIERAN JENDEAK ZUEN MOTIBAZIOA  
HOZTEN JOAN DEN, BAKOITZAK BERE ZEREGINAK DITU.

**10. Beste zerbait esan nahiko bazenu .....**

JENDEA ANIMATU NAHIKO NUKE, PROIEKTU HONEK ETA EUSKARAK AHALEGINTXO BAT EGITEA MEREZI  
DUELAKO. DENON ARTEAN LORTUKO DUGU NORMALIZAZIOA.